

EHBILDU ETA EAJ TALDEEN MOZIO BATERATUA:

Sahararen inguruan Espainiako gobernuak azaldutako azken posizioaren
aurrean

Espainiako Estatuak, arrazoi historiko, politiko eta juridikoengatik, erantzukizun handia dauka bizi-bizi dirauen Mendebaldeko Saharako gatazka politikoan.

Izan ere, 1975an, Hagako Nazioarteko Auzitegiak legez kanpoko jo zituen 'Madrilgo Akordioak'. Ondorioz, Marokok ez dauka subiranotasunik Mendebaldeko Saharan, eta okupazioa legez kanpokoa da erabat.

Duela hamarkada batzuk, Nazio Batuen Gutunean jasotzen denarekin bat etorritik, NBEak Mendebaldeko Saharaz adierazi zuen "Lurralde ez Autonomoa" dela, gobernu propioa osotasunean eskuratu ez duten herrien lurraldeei ematen zaien izendapenaren arabera. Afrika osoan, Mendebaldeko Saharako da oraindik etenda dagoen estatutu post kolonial bakarra.


Halaber, Nazio Batuen Erakundeak Espainiako Gobernuari etengabe erreklamatu dio potentzia kolonial administratzailea izanik –'de iure' ere bai Auzitegi Nazionalak 2014an ebatzi zuen autoaz geroztik–, ahalegindu dadila behar adina Saharako Herriak bere autodeterminazio eskubidea erabil dezan erreferendumaren bidez.

Espainiako Gobernuaren aldebakarreko erabaki berri hau ez da jarrera sinesgarria, ezta errealista ere, izaera politikoko gatazka hau konpontzeko. Horiek horrela:

- 1- Oñatiko Udalak erabat arbuiatzen du Espainiako Gobernuko agintariak Mendebaldeko Saharako gatazka politikoaren inguruan jarrera errotik aldatu izana, historian inoiz ez bezala. Aldaketa honek esan nahi du Marokok Mendebaldeko Sahara erabat bereganatzeko dituen asmo eta anbizioekin bat egiten duela Espainiako Gobernuak.
- 2- Oñatiko Udalaren ustez, Espainiako Gobernuaren azken jarrera honek erabat urratzen ditu Nazioarteko Zuzenbidea, Nazio Batuen

Gutunaren printzipio eta baloreak eta Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluaren ebazpenak, irtenbide politiko bidezko eta iraunkorra aldarrikatzen baitute, alde bien artean adostua eta Saharako Herriaren borondatea askatasun osoz adierazteko eskubidea gauzatuz amaitu beharko litzatekeena.

- 3- Oñatiko Udalak eskatzen die Espainiako Estatuari eta Europar Batasunari berari EBko Justizia Auzitegiak emandako ebazpenak errespetatzeko. Ebazpen horien arabera, Mendebaldeko Saharako era guztietako baliabide naturalak Saharako Herriari dagozkio eta, haren baimenik gabe, ezin ditu inork erabili.
- 4- Oñatiko Udalak inplikaturako alde guztiei eskatzen die uko egiteko probokaziozko edo indarrezko edozein ekintzari; eta konpromisoa hartzeko elkarrizketa eta negoziazio prozesuarekin jarraitzeko, Mendebaldeko Saharan Erreferendumerako Nazio Batuen Misioarekin (MINURSO) hitzartutako akordioak erabat errespetatuz.
- 5- Oñatiko Udalak bere lurraldea okupatuta duen herriaren tragedia aitortzen du; baita basamortuan bizirautea lortzen duten errefuxiatuena ere. Ondorioz, Gipuzkoako erakunde zein herritarrei dei egiten diete jarrai dezatela Mendebaldeko Saharako eta Tindufeko kanpamentuetako egoera humanitaria hobetzeko laguntza eskaintzen.



Egiaztapen Kode Segurua/Código Seguro de Verificación: **SIER53419fec-a40b-4e0a-a37f-830a5f3661be**

Dokumentu elektroniko honen paperezko kopiaren osotasuna eta sinadura egiaztatzeko, sar ezazu egiaztapen kode segurua egoitza elektronikoan:
<https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>

Compruebe la integridad y firma de la copia en papel de este documento electrónico, introduciendo el código seguro de verificación en la sede electrónica: <https://uzt.gipuzkoa.eus?De=05910>